# SAN JOANAK 2016 - TOLOSA



TOLOSAKO UDALA

# jai alai



kutxabank
hemen
eta orain



Olatz Peon Ormazabal
–
Tolosako Alkatea

Urdiain San Joan bezperan Andre Maria plazako oholtza gainean kantari. Aurretik sua, zantzu eta susmo txarrak uxatzeko. Solstizio egunean Iraolakozuloan, urteko egunik luzeenean eta gaurik laburrenean, udari ongi-etorri eta negu beltzari adio, Tolosako San Joan festaren aintzindari.

San Joan egunean Tolosako Alde Zaharra atontzeko garaiz ibilitakoak badira. Eta goizeko ordu txikietan lanean aritutakoak gosaltzen duten bitartean txistulariak Udaletxeko atarian prest; Tolosakoak eta baita Iruñeko txistulariak ere.

Eta hasi dira auzo eta elkarte ezberdinetako eskopetariak burrunban, ke eta txistu soinu artean.

Elizako santuak, eskopetariak, udal txistulariak eta musika banda, elizako kanpaiak eta herritarrak Andre Maria plazan bat egiten dute era mistiko, laiko, profano edo erlijiosoan, herriak herriari gorazarre egiten.

***San Juan iturriaren ondotik, zazpi iturri urre kanuetatik...***

24 bordon dantzari. Bezperak eta Konpletak, alkatearen aurreskua, estropadak, txistulariak, kontzertuak, Zumardiaundiko aurreskua, erraldoiak, prozesioa.

***Aingeruak dantzan dabiltza, dabiltza baia dabiltza...***

Herria baita San Joan festa bera, tradizioa ez da iragana, oraina baizik; herriaren nortasunaren ezaugarria da eta, herriak berak bere nortasunaren eta gizartearen aldaketaren arabera moldatuko duena, abestiak kantatzen duen bezela batzuek bere fedeagatik eta besteak bere ohoreagatik...
Bitartean, Udaberriko neskak jantziaren gaineko gona buruaren gainean, busti ez daitezen. Abestiaren amaieran desio onak bidaltzen dizkie tolosarrei.

*Orain arte bete behar, hemendik aurrera gari!*
***Gora San Joan!!!***

***“Egun bai honek San Juan dirudi, ez da San Juan baina hala alunbra bedi...”***

*Urdiáin cantando la víspera de San Juan en la plaza de Santa María junto al fuego que hará ahuyentar los malos espíritus. Y como preámbulo, la bienvenida al verano y el adiós al sombrío invierno en el paraje de Iraolakozuloa en la época del solsticio de verano con el día más largo y la noche más corta del año.*

*Hay quien ha madrugado para adornar la Parte Vieja; y mientras almuerzan, terminada su labor, la banda de txistularis de Tolosa y de Iruña se dispone a actuar en los soportales del Ayuntamiento.*

*Y comienza a oírse entre el humo y los sones de las flautas a los escopeteros y escopeteras de los diferentes barrios y sociedades.*

*Figuras de santos, de santas, compañías de escopeteros y escopeteras, bandas de música y txistularis, volteo de campanas y el pueblo, todos juntos, en la plaza de Santa María en un acto místico, laico, profano o religioso: el pueblo en homenaje al pueblo.*

*24 bordondantzaris. Vísperas y completas, el aurresku de la alcaldesa, regatas, txistularis, conciertos, el aurresku del Prado Grande, la comparsa de gigantes, la procesión.*

*Es el propio pueblo la esencia de la fiesta de San Juan; la tradición no es el pasado, es el presente; es la muestra de la personalidad de un pueblo; tradición que será modificada por ese mismo pueblo como consecuencia de la evolución de su carácter y de la sociedad en general. Como dice la canción, unos por su fe y otros por su honor...*
*Y finalizando la canción, las chicas del grupo Udaberri, cubriendo sus cabezas con una falda levantada por detrás para que no se mojen, brindarán los mejores deseos para el pueblo de Tolosa.*

Gimnasia

Pilota

Mendia

Atletismoa

Futbola

Tenisa

**Aurtengo jaien hasiera iragartzeko suziria Tolosa CF-k botako du, lortu dituen kirol emaitzen eskerronez.**

Eskubaloia

Txirrindularitza



Amaia Mancisidor Dorronsoro
–
Lizardi Elkarteko kapitaina

*"Lur bustia, eguzkia ateratzen, lehen txiribitu doinuak, ..."*

Ikasturtea amaitzen, udaberri usaina, tenperaturak gora... egun batzuk besterik ez dira falta udako solstiziorako. Eta sanjoanetarako, beste hainbeste. Gure herriko egun zoragarrienerako. Nola ulertu bata, bestea gabe?

Sanjoanak, festa bat baino gehiago, sentimenduak dira. Eta oinez ikasi bezain pronto hasi nintzen ni, eguna hurbildu ahala, tximeletak sabelean sentitzen... Ekainaren 24ak emandako lehen bizipenek estreinatutako soineko berri eta lazoen forma daukate. Jada koxkortuta, elkartean afaldu ondoren, Santa Maria plazara irrikaz egiten genuen korrikaldia daukat gogoan: sua, bordon-dantza, banda, zortzikoa... eta irribarrea ahotik kendu gabe, "ea noiz egiten dugun guk salto!" esaten genion elkarri. Ziur gutakoren batek bete duela inoiz ametsa. Eta ondoren, elkartean, zortzikoa abesten bukatzen genuen gaua.

Baina iritsi zen soineko apainak uzteko momentua. Ez dut inoiz ahaztuko, aitak lehenengoz elkartean ateratzeko egin zidan eskaintza. Nola alde egiten utzi? Ehizako poltsa hartu, eta kartutxeraz. Txilibituaren doinu konplikatua ikasi, eta musikari. Urte batez ere, banderarekin ateratzeko aukera eman zidaten! Ondoren, ilaretara itzuli nintzen lagunartean; oraingoan, eskopetarekin. Hori bai nerabezaroa pasa zenaren seinale!

Orain, berriz, kapitain. Eta ekainaren 23koa gau motzena izango ez balitz ere, ez nuke lo gehiagorik egingo. Goizeko zazpietan esna: alkandora, gona, gorbata, txalekoa, espartinak, zapiak, txapela... eta kalera. Lur bustia, eguzkia ateratzen, lehen txilibitu doinuak, lehen tiro hotsak, lizarra, konpainiak elkartzen, agurtzen... urduritasunez.

Eta egunean zehar agurrak, animoak, tiro-hotsak, danborrak, txilibituak. Kea, sugar usaina. Zortzikoa, prozesioa, bordon-dantza. Korporazioa, banda, krabelinak. Erraldoiak.. eta haien adineko sentimenduak.

Falta direnengatik tristura; gaudenongatik, grina eta poza. Alaitu ume, heldu, gazte. Ez dezagun bizitzeko aukerarik atzean utzi, eta goza dezagun festa! Agur, agur... egun, egun...

Zoragarria. Gora San Joan!


aldaz
hortz klinikak · clínicas dentales
aldaz
hortz klinikak · clínicas dentales
Orain, Tolosan!
San Frantzisko pasealekua, 39.
Tolosa. 943 36 63 77


ORIA BEILATOKIA
TANATORIO
Pol. Usabal, nº 12
20400 TOLOSA
Tel. 943 697 579
tolosa@funerariaoria.com


XOILAN
GARBIKETAK
KOMUNITATE, GARAJE, BULEGO, LANTEGI, MERKATARITZA-LOKAL, ERAIKUNTZA PUBLIKO ETAB-EN MANTENIMENDUA, KRISTALAK, GARBIKETA OROKORRAK, OBRA ONDORENGO GARBIKETAK, LURZORUEN DISDIRATZEA....
T. 943 670 626 S: 659 045 765 / 699 839 166
Igarondo, 1 - behea - TOLOSA
info@xoilan.com
www.xoilan.com


MIKEL
-ALTZARIAK-
Iruña Etorbidea, 22G • 20400 TOLOSA ( GIPUZKOA )
T. 943 67 55 36


ALUSTIZA
margolariak
TOLOSA
606 595 308

Ostirala,
Ekainaren 17a.
–
Viernes,
17 de Junio.

10.00 Mus Txapelketa, Iturriza Jubilatu eta Pentsionisten Elkartearen lokalean.
*Campeonato de Mus en el local de la Asociación de Jubilados y Pensionistas Iturriza.*

17.00 "Beantatuz" kale-arte jaialdia. Munduko dantzen tailerra Trianguloan eta graffiti tailerra San Inazio kalean.
*Festival de arte en la calle "Beantatuz". Taller de percusión y danzas africanas en el Triángulo, y de graffiti en la calle San Inazio.*

20.30 Arimaz Kamera Orkestra eta Errenteria Musikal Orkestraren emanaldia Leidorren. Bakarlaria Myriam Telleria Muguerza. Zuzendaria: Kepa Martinez de Albeniz.
*En el Leidor, concierto de la Orquesta de Cámara "Arimaz" y de la Orquesta Errenteria Musikal. Solista Myriam Telleria Muguerza. Director: Kepa Martínez de Albéniz.*

22.00 Katiuska antzerki taldearen eskutik "Zartapa" antzezlana Topic-en.
*En el Topic, representación de la obra de Teatro "Zartapa" a cargo del grupo Katiuska.*




2016ko Sanjoanetako kartel lehiaketaren irabazleak:
*Lara eta Julen*
*Aranzabal Segura*

Larunbata,
Ekainaren 18a.

–

Sábado,
18 de Junio.



TFK futbol eskolaren amaiera festa Berazubin.
*En Berazubi, fiesta de fin de curso de la escuela de fútbol del TCF.*

Txinparta elkarteak antolatuta, Iñaki Epelderen omenezko II. Pintura Lehiaketa aire librean.
*Certámen de pintura al aire libre "II memorial Iñaki Epelde". Organizado por la sociedad Txinparta.*

Harizpe elkarteak antolatuta, herriko sei jubilatu zaharrenei omenaldia.
*Homenaje a las seis personas jubiladas de más edad, organizado por Harizpe Elkartea.*

09.00 "Giro Arte" dultzaina taldea kalez kale ibiliko da herria doinuz alaitzen.
*El grupo de dulzainas "Giro Arte" recorrerá las calles de la villa.*

10.00 "Mas Karreras" auto topaketa Alondegi plazan.
*En Alondegi plaza, encuentro de automóviles "Mas Karreras".*

10.00 Beantatuz kale-arte jaialdia. Graffiti tailerra San Inazio kalean.
*Festival de arte en urbano "Beantatuz". Taller de Graffiti en la calle San Inazio.*

10.00 Beotibar pilotalekuan, Tolosako Beotibar Zesta Punta Eskolak antolatuta, XXV. San Joan Zesta Punta Txapelketaren finalak.
*En el frontón Beotibar, final del XXV Trofeo San Juan de Cesta Punta, organizado por Tolosako Beotibar Zesta Punta Eskola.*

11.00 Elkarteen arteko Topaketa Solidarioa, Pausoka elkartearen alde. Pintxo dastaketa Zerkausian, elkarteen arteko estropada, bazkaria, poteoa eta kalejira.
*Encuentro Solidario Intersociedades, a favor de la asociación Pausoka. Degustación de pinchos en el Zerkausia, regata entre sociedades, comida, poteo y pasacalles.*

12.00 "Tolosa Herria III. Argazki Lehiaketaren" sari-banaketa, Kasino Elkartean.
*En el Casino de Tolosa, reparto de premios del "III Concurso de Fotografía Tolosako Herria".*

17.00 "Jainekin" txaranga kalez kale ibiliko da herria doinuz alaitzen.
*La charanga "Jainekin" recorrerá las calles de la villa.*

17.00 Beantatuz kale-arte jaialdia. Parkour tailerra Trianguloan.
*Festival de arte urbano "Beantatuz". Taller de Parkour en el Triángulo.*

17.00 Elkarteen arteko Topaketa Solidarioaren egitarauaren baitan, Herri kirol saio herrikoiak Plaza Berrian, Euskal Herria plazan eta Lopez Mendizabal pasealekuan.
*Dentro del programa del Encuentro Solidario Intersociedades, deporte rural popular en la Plaza Berria, Euskal Herria plaza y Lopez Mendizabal pasealekuan.*

18.00 Kultur Etxeko dantza-tailerreko ikasleen ikuskizuna: "Eguzki erregearen bidaia", Leidor aretoan.
*En el Leidor, espectáculo del alumnado del taller de danza de la Casa de Cultura; "El viaje del rey Sol".*

18.00 San Joan saria eskubaloi txapelketako finalak, Usabal kiroldegian.
*En el polideportivo Usabal, finales del torneo San Juan de Balonmano.*

19.00 Berdura plazan, "San Joan" Sagardo Txapelketa. Txapelketa bitartean, debaldeko dastaketa: bakailaoa, sagardotan egositako txorizoa eta sagardoa. Antolatzailea: Batasuna elkartea.
*En la plaza Berdura, Campeonato "San Juan" de Sidra. En el transcurso de la prueba, degustación gratuita de bacalao, chorizo a la sidra y sidra. Organizado por la sociedad Batasuna.*

19.00 Batukada feminista "ahAlgara Morea" kalez kale ibiliko da herria doinuz alaitzen.
***Batucada feminista: "ahAlgara Morea", recorrerá las calles de la Villa.***

23.00 Jainekin" txaranga kalez kale ibiliko da herria doinuz alaitzen.
*La charanga "Jainekin" recorrerá las calles de la villa.*


Sanz
CLÍNICA DENTAL
ODONTÓLOGO GENERAL
IMPLANTES
PRÓTESIS
Rondilla 48, 1B
20400
TOLOSA
Tel.: 943 65 33 39
Dr. Fco. Javier Sanz Céspedes
Médico-Odontólogo
Colegia.20.000.573


UZTURRE
ERAIKUNTZA ETA IGELTSERITZA
Laskibar Bailara, 1. Pab. 17
20271 IRURA (Gipuzkoa)
T. 649 836 604 - 618 55 78 10
F. 943 690 772
uzturre_irura@hotmail.com


SALMENTA ZUZENA
goya.
T. 943 655 224
www.carnicasgoya.com
Pol. Ind. Benta-Aldea, 4 - 20270 ANOETA (Gipuzkoa)


AVIA
ARRIARAN
1949-tik kalitatezko zerbitzu/produktuak eskeintzen.
- Erregaiak
- Garbiketa profesionalak
- Azken momentuko erosketak
ONDO PASA SANJOANAK!!!
Larramendi 28 Tolosa / Tel: 943 67 49 82 /
info@arriaran.com / www.arriaran.com


ENPRESA AHOLKULARITZA
FISKALA / MERKATARITZA / KONTABILITATEA / LANA
ARGITU
AHOLKULARIAK
San Frantzisko Ibiltokia, 5
20400 Tolosa
T. 943 654 727
F. 943650 288
argitu@argitu.es
www.argitu.es

**Igandea, Ekainaren 19a.**

–

**Domingo, 19 de Junio.**

09.00 "Tolosaldeako Hiru Tontorrak" mendi maratoia. Irteera eta helmuga Trianguloan.
*Maratón de montaña "Tolosaldeako Hiru Tontorrak". Salida y llegada en el Triángulo.*

11.30 Zezen plazan zaldi ikuskizuna: doma, saltoak, barrak, karrusela eta grand national.
*En la plaza de Toros espectáculo ecuestre; doma, salto, barras, carrusel y grand national.*

12.00 Batel estropadak Oria ibaian, San Joan saria. Infantilak eta kadeteak (neska-mutilak).
*Regatas de bateles en el río Oria, gran premio San Juan. Infantiles y cadetes (masculino-femenino).*

17.00 Beantatuz kale-arte jaialdia. Parkour tailerra Trianguloan.
*Festival de arte en la "Beantatuz". Taller de Parkour en el Triángulo.*

19.30 "Hodeiertz" abesbatzaren kontzertua Jesuitinetako kaperan
*Concierto del coro "Hodeiertz" en la capilla de las Jesuitinas.*



Osteguna,
Ekainaren 23a.
–
Jueves,
23 de Junio.



16.00 Igeriketa-probak Usabal kiroldegian: XLVII. San Joan saria.
*En el polideportivo Usabal, pruebas de natación, XLVII Trofeo San Juan.*

17.00 Txistularien kalejira, antzinako erronda-bidetik barrena.
*Pasacalles de txistularis según el recorrido de la antigua ronda.*

17.00 Erraldoi eta Buruhandien Konpartsaren irteera, "Tolosako Dultzaineroek" lagunduta, Gernikako Arbola lorategitik.
*Salida desde Gernikako Arbola lorategia de la Comparsa de Gigantes y Cabezudos acompañada por "Tolosako Dultzaineroak".*

18.00 Jaien hasiera iragartzeko, suziri baten jaurtiketa Udaletxeko balkoitik eta kanpai-iraulketa.
*Lanzamiento de un cohete desde el balcón de la Casa Consistorial para el anuncio del comienzo de fiestas y volteo de campanas.*

18.00 "Iraunkorrak" txaranga kalez kale ibiliko da herria doinuz alaitzen.
*La charanga "Iraunkorrak" recorrerá las calles de la villa.*

19.00 Plaza Zaharrean, haurrentzat San Joan su txikia piztuko da. Tolosako Musika Eskolako Ikasleen bandak jardungo du.
*Fogata infantil en la plaza Zaharra. Actuará la banda de música del alumnado de la Escuela Municipal de Música.*

19.30 Bertso jaialdia Zerkausian: Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Ohiana Iguaran eta Beñat Iguaran. Gai-jartzailea: Iker Iriarte.
*En el Zerkausia festival de bertsolaris: Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Ohiana Iguaran y Beñat Iguaran. Presentador: Iker Iriarte.*

19.45 Udalbatza Plaza Zaharretik abiatuko da Arrameleko San Joan kaperako bezperetan eta arrats otoitzetan parte hartzeko.
*El Excmo. Ayuntamiento en corporación partirá de Plaza Zaharra, para asistir a las tradicionales vísperas y completas en la capilla de San Juan de Arramele.*

20.00 Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestraren kontzertua, Berdura plazan.
*En Berdura Plaza, concierto de la Orquesta de Acordeones Isidro Larrañaga.*

22.00 San Joan sua piztuko da Andre Maria Plazan, Udalbatza bertan dela. Ondoren, Udaberri dantza taldeak eta Tolosako Musika Bandak jardungo dute. "San Joan" zortzikoa jo ondoren, Musika Banda kalez kale ibiliko da. Ondoren "Tolosako Santa Maria Kapera"-k kantatuko du.
*Tradicional fogata de San Juan en Andre María Plaza presidida por la Corporación; actuación del grupo de Udaberri Dantza Taldea y la Banda de Música de Tolosa, que interpretará el zortziko de San Juan, recorriendo a continuación las calles de la villa. Seguidamente actuará "Tolosako Santa Maria Kapera".*

22.00 San Joan plazan "Emakumea naiz eta euskalduna" Akelarre gaua. Sua kultur Ekimenak eta Larramendi Auzo Elkartearen eskutik.
*En San Joan plaza noche de Akelarre "Emakumea naiz eta euskalduna". Organizado por Sua Kultur Ekimenak y Larramendi Auzo Elkartea.*

23.00 Kontzertua Plaza Berrian: "Potentor", "Spira" eta "Choice".
*En la plaza Berria, concierto: "Potentor", "Spira" y "Choice".*


TOLOSA
Hipermerkatua
Laguntzarekin colabora
EROSKI
zurekin


TINTATEGIA - KONPONKETAK - TINTORERÍA - ARREGLOS
Dizdira
OHIKO ETA
LEHORREKO GARBIKETA
ESKURATU
DOAN
Jantzi baten
garbiketa:
- Jertsea
- Gona
- Galtza
San Francisco 13, Tolosa
Tel.: 943 25 67 53


ZABALA
KAFEAK
Nafarroako etorbidea, 2 · Tel.: 943-65 47 95 · TOLOSA
ZUEN ESKURA KOLONBIAKO
KAFE EKOLOGIKOA


ANOETA
ZUBI AUTO
OPEL
Wir leben Autos.
Benta-Aldea Industrialdea, 3
20270 ANOETA TOLOSA (Gipuzkoa)
Tel.: +34 943 650 049 - 678 318 870


Casa Arregui
Larramendi, 3
TOLOSA
SIEMPRE CONTIGO EN NUESTRAS FIESTAS
Tel. 943 675 703 Fax. 943 697 540 Tel. Guardia. 686 326 942
-Complementos decoración interior
-Diseño y decoración de jardines
-Ramos de novia, bodas y celebraciones
-Composiciones florales funerarias
-Mobiliario de terraza y jardín
-Servicios privados a tanatorios




Ostirala,
Ekainaren 24a.
–
Viernes,
24 de Junio.





07.00 Zinegotziei deia, Tolosako Udal Txistulari Bandaren eskutik.
*Llamada a las concejalas y concejales a cargo de la Banda Municipal de Txistularis.*

08.30 Diana, Tolosako Musika Bandaren eskutik.
*Diana a cargo de la Banda de Música de Tolosa.*

08.45 Diana, Tolosako eta Iruñeko Udal Txistulari Banden eskutik.
*Diana a cargo de las Bandas Municipales de Txistularis de Tolosa y Pamplona.*

09.00 Diana, "Tolosako Dultzaineroak" taldearen eskutik.
*Diana a cargo de "Tolosako Dultzaineroak".*

09.00 Oriako Txirrindulari Eskolak antolatuta "XLII. Jose Mª Anza Memoriala" 1. eta 2. mailako afizionatuentzako txirrindulari-lasterketaren irteera.
*Salida de la prueba ciclista para aficionados de 1ª y 2ª, "XLII Memorial José Mª Anza", organizada por Oriako Txirrindulari Eskola.*

09.30 Plaza Zaharrean eskopetariak eta Tolosako Musika Banda bilduko dira. Diana, desfilea eta, ondoren, San Joan Alardea, Gipuzkoako antzinako foru-milizien oroimenez, Udalbatza buru dela.
*Concentración en la plaza Zaharra de las distintas compañías de escopeteros y escopeteras, junto con la Banda de Música. Diana, desfile y posterior celebración, recuerdo de las antiguas milicias forales guipuzcoanas, del Alarde de San Juan, presidida por la Corporación municipal.*

10.00 Meza Nagusia Andre Maria parrokian. Santa Maria Kaperak parte hartuko du. Ondoren, prozesioa. Bertan parte hartuko dute Udalbatzak, kofradiek, dantzariek eta erraldoiek; aldi berean, elkarteetako eskopetariek ordenantzetako salbak botako dituzte betiko tokietan.
Elizkizunak amaitu ondoren, eskopetari konpainiak Euskal Herria plazan bilduko dira berriro, bertan azken deskargak egiteko.
*Solemne misa mayor en la parroquia de Santa María con la participación de la Capilla Santa María. A continuación, tradicional procesión de San Juan Bautista, con asistencia del Excmo. Ayuntamiento en corporación, con la participación de cofradías, dantzaris y gigantes; simultáneamente los y las escopeteras de las sociedades recreativas, harán las salvas de ordenanza en distintos lugares del recorrido. Terminados los actos religiosos, nueva concentración de compañías en la Plaza Euskal Herria. Descargas finales.*

Ostirala,
Ekainaren 24a.
–
Viernes,
24 de Junio.







11.00 Puzgarriak, Alondegi plazan.
*Hinchables en la plaza Alondegi.*

13.00 Kontzertua, Berdura plazan, Tolosako Musika Bandarekin eta Tolosako eta Iruñeko udal txistulariekin.
*En plaza Berdura concierto a cargo de la Banda de Música de Tolosa, junto con las bandas de Txistularis de Tolosa y Pamplona.*

16.00 Puzgarriak, Alondegi plazan.
*Hinchables en la plaza Alondegi.*

16.40 Udalbatza, Tolosako Musika Banda, txistulari, bordondantzari eta eskopetariak Plaza Zaharretik abiatuko dira, Andre Maria eliza nagusiko bezperetara joateko. Ondoren, Arrameleko San Joan kaperan izango diren arrats otoitzetan parte hartuko dute.
Elizkizuna amaitzean, Udalbatza, bordondatzariak, txistulariak, Musika Banda eta eskopetarien konpainiak Trianguloan bilduko dira, bertan Udalbatzak Esku-aldatzeko soinua eskainiko du, eta azken deskargak egingo dira. Ondoren, Udalbatza Zumardiaundira joango da eta ohiturazko Aurreskua dantzatuko da bertan.
*El Exmo. Ayuntamiento en corporación junto con Banda de Música, txistularis, bordondantzaris, escopeteros y escopeteras partirá de Plaza Zaharra para asistir a las tradicionales vísperas en la iglesia parroquial de Santa María y a continuación a las completas en la capilla de San Juan de Arramele. Terminados los actos religiosos, la corporación, Bordondantzaris, Txistularis, Banda de Música y los y las escopeteras acudirán al Triangulo, donde la Corporación Municipal ofrecerá el Esku-aldatzeko soinua, y tendrán lugar las descargas finales. Seguidamente la Corporación se dirigirá al Prado Grande, donde se bailará el tradicional aurresku.*

20.00 Eta 23.30etan "Kalean" txaranga kalez kale ibiliko da, herria doinuz alaitzen.
*La charanga "Kalean" recorrerá las calles de la villa.*

23.00 Suak: Valecea piroteknia.
*Fuegos artificiales: Pirotecnia Valecea.*

23.00 Dantzaldia "Haitzama" taldearekin, Lopez Mendizabal pasealekuan.
*Bailables a cargo del grupo "Haitzama" en el paseo Lopez Mendizabal.*

23.00 Kontzertua Plaza Berrian: "Humus" eta "El Drogas".
*En la plaza Berria concierto a cargo de "Humus" y "El Drogas".*

Larunbata,
Ekainaren 25a.
–
Sábado,
25 de Junio.







11.00 **Haurren entzierroa. Irteera Plaza Berritik**
*Encierro infantil. Salida desde la plaza Berria.*

11.00 **Tolosako Koadrilen Egunari hasiera emango zaio Plaza Berrian. Txosnagunean hamaiketakoa egingo da, "Bonberenea Txarangak" eta "Giroarte" dultzaina taldeak alaituta.**
*Concentración de las cuadrillas en la plaza Berria. Almuerzo en la zona de txosnas, amenizado por La charanga "Bonberenea" y el grupo de dulzainas "Giroarte".*

11.30 **Erraldoi eta Buruhandien Konpartsaren irteera Plaza Zaharretik, "Tolosako Dultzaineroak" taldeak lagunduta.**
*Salida desde plaza Zaharra de la Comparsa de Gigantes y Cabezudos acompañados por el grupo "Tolosako Dultzaineroak".*

12.00 **"Tolosa Kantari" taldea kalez kale ibiliko da, herria kantuz alaitzen.**
*El grupo "Tolosa Kantari" recorrerá las calles de la villa.*

12.00 **Koadrila eguneko txupinazoa Plaza Berrian**
*Chupinazo del día de las cuadrillas en la plaza Berria.*

14.00 **Koadrilen herri-bazkaria, Euskal Herria plazan.**
*En la plaza Euskal Herria, comida popular de cuadrillas.*

Larunbata,
Ekainaren 25a.
–
Sábado,
25 de Junio.





16.30 **Erromeria "Trikidantz" taldearekin, Euskal Herria plazan.**
*Romería a cargo del grupo "Trikidantz" en la plaza Euskal Herria.*

17.00 **Esku pilota Beotibar pilotalekuan; 4 t'erdiko Txapelketaren finalak (afizionatuak).**
*Pelota a mano en el frontón Beotibar; finales del campeonato del 4 y medio (aficionados).*

18.00 **Larrain Dantza "Tolosako Dultzainariak" taldearekin, Euskal Herria plazan.**
*Larrain Dantza en la plaza Euskal Herria a cargo del grupo "Tolosako Dultzainariak".*

18.00 **Haur ikuskizuna Alondegi plazan: "Patxin eta Potxin".**
*Espectáculo infantil en la plaza Alondegi; "Patxin eta Potxin".*

18.30 **Kalejira "Mulambo" perkusio-taldearekin, Euskal Herria Plazatik Plaza Berrira.**
*Kalejira con el grupo de percusión "Mulambo" desde la plaza Euskal Herria hasta la Plaza Berria.*

20.00 **Plaza Berrian "Rockalean" elektro-txaranga.**
*En la Plaza Berria electro-charanga "Rockalean".*

23.00 **Dantzaldia "Txamukos Mariatxia" taldearekin, Lopez Mendizabal pasealekuan.**
*Bailables a cargo del grupo "Txamukos Mariatxia" en el paseo Lopez Mendizabal.*

23.00 **Kontzertua Plaza Berrian: "Konbenio del Metal" eta "Los Zopilotes Txirriaos".**
*En la Plaza Berria concierto a cargo de "Konbenio del Metal" y "Los Zopilotes Txirriaos".*

Igandea,
Ekainaren 26a.

–

Domingo,
26 de Junio.





09.00 **Arku-tiraketa Zumardiaundian, "Aspanogi" elkartearen alde.**
*Tiro con arco en Zumardiaundia, a favor de la asociación "Aspanogi".*

10.00 **Beotibar pilotalekuan, Elkarteen arteko 1. Pilota Txapelketa**
*En el frontón Beotibar, I. Torneo de Pelota intersociedades.*

10.00 **Toka lehiaketa, Tolosako Harizpe elkarteak antolatua, San Frantzisko pasealekuan.**
*En el paseo San Francisco, concurso de Toca, organizado por la asociación Harizpe.*

12.00 **Herri Kirolen erakustaldia Trianguloan; Joseba Ostolaza, Idoia Etxeberria, Donato Larretxea, Ugaitz Mugertza, Xanta Sousa, Itsaso Onsalo eta Leire Astiazaran.**
*Exhibición de deporte rural en el Triángulo: Joseba Ostolaza, Idoia Etxeberria, Donato Larretxea, Ugaitz Mugertza, Xanta Sousa, Itsaso Onsalo y Leire Astiazaran.*

12.00 **Tenis txapelketako finalak Berazubin.**
*En Berazubi, finales del campeonato de tenis.*

12.00 **"Haurren Hiria" Zumardiaundian: naturan oinarritutako zientzia esperimentu didaktikoak, jolasak, piknika familian, eta "Charlie & The Colours" taldearekin kontzertu parte hartzailea.**
*"Haurren Hiria" Zumardiaundia: experimentos científicos didácticos basados en la naturaleza juegos, piknik familiar, y concierto participativo con el grupo "Charlie & The Colours".*

17.00 **Haur ikuskizuna Zumardiaundian; "Gari Montxo eta Joselontxo".**
*Espectáculo infantil en Zumardiaundia; "Gari Montxo eta Joselontxo".*

18.30 **Zezen-plazan, xexenak eta ponyak haurrentzat.**
*En la plaza de toros, toritos y ponys (infantil).*

20.00 **Dantzaldia Plaza Berrian: "Egan".**
*Bailables en la Plaza Berria: "Egan".*

TOLOSA MOTOR, s.a.

PEUGEOT KIA MOTORS

San Esteban, 14-a 20400
TOLOSA-GIPUZKOA
Tel. 943 65 03 37

tolosaldeko ataria
www.ataria.info • 107.6 fm

Chroma

Jai zoriontsuak!
¡Felices fiestas!

market

Larramendi kalea, 32-34

Astelehenetik larunbatera irekitzen dugu, 9:30 – 21:30.
Abrimos de lunes a sábado de 9:30h a 21:30h.

Aparkalekua doan
42 aparkaleku
Kontsultatu baldintzak kutxan.
Parking gratuito
42 plazas
Consulta condiciones en caja.

Etxez etxeko zerbitzua doan
40 €-tik gorako erosketetan.
Servicio a domicilio gratuito
Por compras superiores a 40€.

MUGIKORREKO ZERBITZUAK
SERVICIOS EN TU MÓVIL
Deskargatu "Mi Carrefour" aplikazioa
Descárgate la App "Mi Carrefour"

JARRAI IEZAGUZU
SÍGUENOS EN



## Oharrak

–

## Notas de interés

Ekainaren 10ean 20:30ean“Proceso por la sombra de un burro” antzezlana Kultur Etxeko antzerki-tailerreko ikasleen eskutik, Leidor aretoan.
*El 10 de junio a las 20:30 Teatro en el Leidor, “Proceso por la sombra de un burro” a cargo del alumnado del taller de Teatro de la Casa de Cultura.*

Ekainaren 11an Futbol-Txapelketa Berazubin, Urtzi Gurrutxaga III. Memoriala.
*El día 11 de junio en Berazubi, campeonato de fútbol III Memorial Urtzi Gurrutxaga.*

Ekainaren 11n Padel Txapelketa, Gainditzen elkarteak antolatuta, Berazubin.
*El 11 de junio en Berazubi, campeonato de padel organizado por la asociación Gainditzen.*

Ekainaren 11n (09:00etan Gernikako Arbolan) eta arratsaldean (15:00etan San Frantzisko pasealekuan), saskibaloia kalean (3 x 3): XVII. San Joan saria.
*El 11 de junio con horario de mañana (09:00 Arbol de Guernica) y tarde (15:00 en el paseo San Francisco), XVII Torneo San Juan de baloncesto en la calle (3x3).*

Ekainaren 16an Udal Musika Eskolako ikasleen kontzertua, Musika Eskolan.
*El 16 de junio concierto del alumnado de la Escuela de Música, en la propia escuela.*

Ekainaren 18an Iurre auzoaren 25. urteurreneko festa.
*El 18 de junio fiesta 25 aniversario del barrio de Iurre.*

“Beantatuz” kale-arte jaialdiko tailerretako izena ematea Kultur Etxean Ekainaren 17a arte (dohainik).
*Inscripciones para los talleres del festival de arte urbano “Beantatuz” en la Casa de Cultura hasta el 17 de junio (gratuito).*

Ekainaren 30etik uztailaren 3ra, Tolosandblues: “Bluecifer & Diablues”, “Ghost Number & His Tipsy Gypsies”, “The excitements”, “David Philips”, Dr. Swingez”, Shakura S’aida”, White Towels” eta “Elkano Browning”.
*Del 30 de junio al 3 de julio Tolosandblues: “Bluecifer & Diablues”, “Ghost Number & His Tipsy Gypsies”, “The excitements”, “David Philips”, Dr. Swingez”, Shakura S’aida”, White Towels” y “Elkano Browning”.*

Ekainaren 21etik uztailaren 2a arte Aranburu Jauregian, Kultur Etxeko arte plastikoen lantegietako ikasleen lanen erakusketa.
*Del 21 de junio al 2 de julio, en el Palacio Aranburu, exposición de obras del alumnado de los talleres de artes plásticas de la casa de cultura.*

Ekainaren 21ean, 19:00etan Topic-en Txinparta elkarteak antolatutako Tolosako margolarien XLX. erakusketaren inaugurazioa (ekainaren 28ra arte zabalik).
*El 21 de junio a las 19:00 en el Topic, inauguración de la XLX exposición de pintura de artistas tolosarras organizada por la Sociedad Txinparta (abierta hasta el 28 de junio).*

Ekainaren 27tik uztailaren 3ra Usabal kiroldegian, areto-futbola haurrentzat, Arsenal kirol elkarteak antolatuta.
*Del 27 de junio 3 de julio en el polideportivo Usabal, finales del campeonato de fútbol sala infantil organizado por el Club Deportivo Arsenal.*

Ekainaren 28an Gay, Lesbiana eta Transexualen Eskubideen Nazioarteko Eguna.
*El 28 de junio Dia Internacional por los Derechos de Gays, Lesbianas y Transexuales.*

# Jaien aurrekontua
–
# Presupuesto de fiestas

| | |
|---|---|
| Gaueko musika emanaldiak | 22.809 € |
| Eguneko musika emanaldiak | 16.184 € |
| Su Festa | 5.500 € |
| Dantza emanaldiak | 2.748 € |
| Herri kirolak | 2.500 € |
| Elizen loreztatzea | 2.136 € |
| Haur ikuskizunak | 12.684 € |
| Eskopetariak | 11.889 € |
| Koadrila eguna (azpiegiturak) | 7.053 € |
| Topaketa solidarioa (elkarteak) | 5.000 € |
| Megafonia instalazio guztiak | 5.000 € |
| Egile eskubideak | 3.000 € |
| Kartel Lehiaketa | 1.173 € |
| Bestelako gastuak | 17.158 € |
| **Guztira** | **114.834 €** |

**Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M.**
Telefonoa: 943 655 695
tkt@ataria.info
www.ataria.info

Diseinua eta maketazioa: Chroma
www.chromabranding.com

URKAZ
eraikuntzak

Eraikuntzak
Zaharberritzeak
Erreformak

T. 661 95 10 89
E. info@urkaz.com
www.urkaz.com

# SHUYANA
EDERGINTZA




**Shuyana Edergintza**
Tu centro de belleza
y bienestar.
Facial y corporal.

**Shuyana denda**
Asesoreamineto
en cosmética y color.
Últimas tendencias.
Cursos automaquillaje.
Visita nuestra página
web.

**Estetika:**
Eskolapioetako lorategiak 3, 1A
Telefonoa: 943 675 489

**Kosmetika:**
Korreo Kalea 1,
Telefonoa: 943 671 468

**www.shuyana.com**

elduaien

hizkuntzaeskola · academia de idiomas

ondo pasa Sanjoanak!



tel.: 943 67 47 33 • kondeko@elduaien.com • www.elduaien.com